# Ekologikoak

2025/06 N.#6


DATU ESTATISTIKOAK
**Nekazaritza ekologikoa egonkor mantendu da**
P. 2

X. NAFARROAKO AZOKA EKOLOGIKOA
**Irailaren 12an, 13an eta 14an Noainen**
P. 4

CPAEN/NNPEK
**CPAEN/NNPEK operadoreak ezagutu**
P. 5




## Nafarroako Azoka Ekologikoak 10 urte bete ditu aurten!!

CPAEN NNPEK ES-ECO-025-NA

Alimentos ecológicos de Navarra — eko logikoak para vivir mejor!

**Irailak 12, 13 eta 14**

**Zentzumenen Parkea (Noain)**


www.navarraecologica.org
www.cpaen.org

LG NA 1181-2021 | **CPAEN-NNPEK** Avd. Serapio Huici 22. Perituen eraikina 31610 Atarrabia [Nafarroa]

# Nafarroako sektore ekologikoa egonkorra jarraitzen du, 2014an 160 milioi euroko negozio-bolumena izanez

**CPAEN/NNPEK Nafarroako sektore ekologikoaren dosierra aurkeztu egin du gaur 2024ko datuak itxiz, aurreko ekitaldietan bezala, Nafarroako nekazaritza ekologikorako erabiltzen diren hektareen igoera txiki bat eta operadoreen beherakada txiki bat jasotzen dituen txosten batek adierazten du sektorea egonkor mantentzen dela.**

María José Arrondo CPAEN/NNPEKeko lehendakaria komunikabideen aurrean agertu da gaur goizean, Nafarroako nekazaritza ekologikoaren sektoreari buruzko datuak biltzen dituen dosierra aurkezteko. Lehendakariarekin batera, Enrique Arnedo CPAEN/NNPEKeko zuzendari teknikoa eta gerentea, Natalia Bellostas INTIAko zuzendari gerentea eta Jose Maria Aierdi Nafarroako Gobernuko Landa Garapen eta Ingurumen kontseilaria izan dira.

Nafarroako nekazaritza-sektorearen negozio-bolumena 160 milioi eurokoa izan zen 2024an, eta azalera % 3,8 handitu zen, 2023an 70.351 hektarea izatetik 2024an 73.021 hektarea izatera igaro baitzen, hau da, Nafarroako nekazaritza-azalera osoaren % 7,91, larreak barne, aurreko aldian % 7,4 izan zen bitartean. Hala ere, operadore kopuruak behera egin du, 786tik 768ra. Europarekin alderatuta, Nafarroa batez bestekoaren ia bost puntu azpitik dago, nekazaritzako lur guztien % 12,51 hartzen baitu.

**Kontsulta ezazu 2025eko dosier osoa**

## 1 Ziurtapen-datu nagusiak

| | Superficie en hectáreas<br>Azalera hektareatan | Superficie agraria certificada<br>Ziurtatuko nekazaritza azalera | Nº de operadores/as<br>Operadore-kopurua |
|---|---|---|---|
| 2023 | 70.351 ha | 7,4 % | 786 |
| 2024 | 73.021 ha | 7,91 % | 768 |
| | +3,8 % | +6,9 % | -2,29 % |

**Alimentos certificados**
Elikagai ziurtatuak
**2.500**

**Volumen de negocio del sector**
Sektore negozio-bolumena
**+160 M€**

## 2 CPAEN-NNPEK irudiak

| | Agricultores/as<br>Nekazariak | Elaboradores/as<br>Elaboratzaileak | Ganaderos/as<br>Abeltzainak | Comercializadores/as<br>Biltegizain | Importadores/as<br>Inportatzaileak |
|---|---|---|---|---|---|
| 2023 | 548 | 176 | 76 | 48 | 10 |
| 2024 | 532 | 172 | 77 | 48 | 10 |
| | -2,92 % | -2,84% | +1.32% | = | = |

*Un/a operador/a puede tener más de una figura.
Operadore batek figura bat gehiago izan dezake.

## 3 azalera ekologiko ziurtatua




## 4 Labore nagusiak




## 5 Enpresa eraldatzaileak

**Producción vegetal**
Landare ekoizpena

**140**

| | 2023 <> 2024 | |
|---|---|---|
| **Elaboración y conservas vegetales**<br>Elaborazioa eta kontserba begetalak | 52 | -5,45 % |
| **Bodegas**<br>Upategiak | 30 | +7,14 % |
| **Elaboración productos de panadería**<br>Okintzako produktuen elaborazioa | 17 | +13,33 % |
| **Elaboración de aceite**<br>Olio-elaborazioa | 12 | = |
| **Otros**<br>Besteak | 29 | -3,33 % |

**Producción animal**
Animalia ekoizpena

**32**

| | 2023 <> 2024 | |
|---|---|---|
| **Elaboración y conservación de carne**<br>Haragi elaborazioa eta kontserbazioa | 14 | -12,5 % |
| **Miel y huevos**<br>Eztia eta aurrautzak | 8 | -25 % |
| **Productos lácteos**<br>Esne-produktuak | 9 | +28,57 % |
| **Elaboración y conservas de pescados**<br>Arrain elaborazioa | 1 | = |

## 6 Abeltzaintza

**Ganadería. Número de ganaderos/as**
Abeltzaintza. Abeltzain kopurua




**Producciones ganaderas por especies 2024**
2024ko abeltzaintza jarduerak



# X. Nafarroako Azoka Ekologikoa irailaren 12 tik 14ra ospatuko da Noainen

**Gorde data, uda bukatzerakoan itxarongo dizuegu: irailaren 12, 13 eta 14an Noaingo Zentzumenen Parkean Nafarroako Azoka Ekologikoaren X. edizioa.**

Nafarroako Azoka Ekologikoa aurten bere 10. urteurrena ospatuko du, ekitaldia irailaren 12,13 eta 14an izango da Noaingo Zentzumenen Parkean. Nafarroako sektore ekologikoaren urtero ospatzen den topagunea, elikagaiei balio erantsia ematen duena.

**2015az geroztik antolatutako ekitaldiak zuzeneko salmenta eta ekoizleak bertatik bertara ezagutzeko aukera uztartzen ditu,** eta tokiko elikagaiak, freskoak eta sasoikoak kontsumitzeak duen garrantziaz sentsibilizatzeko eta ikasteko jarduera-programa handi bat: **euroorria ezagutzeko.**

Aurten, 10. urteurrenaren ondorioz NNPEKen operadoreak dohainik parte hartu dezakete.

Azoka hainbat gune ezberdin izango ditu **azoka, gastronomía espazioa, txikiekozona, tailer eta hitzaldien gunea eta "Beste mundu bat posible da"** espazioa. Zonalde honetan, aurkeztuko dira hainbat proiektu bidegarriak, jasangarriak eta arrakastatsuak bizitza jasangarri batera lotutak daudenak, hiritartasunari beste mundu bat posiblea dela adierazteko.




## Etorkizuna ekologikoa da", CPAEN/NNPEK-ko dokumental berria

**CPAEN/NNPEKek dokumental bat argitaratu du ekoizpen ekologikoari buruzko bideo-bilduma baten ondorioz, horretan diharduten pertsonen lana ikusarazteko.**




Leire, Ignacio, Ibon, Arantzazu, Jesus, Panpi, Goiza, Edorta, Paula, Elena eta Mikel aurkezten dizkizuegu. Ekoizleak eta elaboratzaileak, merkataria, ostalaria, elikagai ekologikoak kontsumitzen dituen kirolaria, ekoizpen ekologikoan aditua eta auditorea. Haiek, etorkizun ekologiko baten alde egiten dute, eta Nafarroako elikagai ekologikoei balioa ematen diete. Protagonistak bere ikuspuntutik elikadura ekologikoaren garrantziari buruz hitz egiten dute.

Dokumentalean eta baita ere elkarrizketa pertsonaletan, protagonistak produktu eta elikadura ekologikoaren garrantzia azaltzen dute. **Dokumentala duela bi urte hasi egin zen "Etorkizuna ekologikoa da" campaina baten itxiera** da nekazaritza ekologikoari eskainitako bizitza oso baten adibideak, baina baita belaunaldien arteko erreleboarenak eta ekoizpen ekologikoan ekiteko apustuarenak ere.

**Dokumentala ikusi Etorkizuna ekologikoa da"**

## "Egin zaitez eko" erakusketa ibiltaria berriz Nafarroako liburutegiak bisitatu ditu



**Elikagai ekologiko erraldoiek Allo, Monteagudo, Olazti eta Txantreako liburutegia bisitatuko dituzte udaberri honetan, martxoaren 31tik ekainaren 22ra bitarte. Erakusketa horretan, baratze ekologiko baten mantenua ikasteko aukera ere egongo da, hiru saiotan banatutako ikastaro batean.**

'Egin zaitez eko' erakusketak Nafarroako ekoizpen ekologikoaren aniztasun handia erakusten du, liburutegien barruan kokatuko diren hainbat elikagai eta animalia erraldoiren bidez: Pirinioetako behi bat, produktuen-saski bat, sagar bat, bi azenario, ardi latxa bat, Eko Bio hitzak... Informazio panelekin batera, galdera sorta baten bidez, bertaratzen diren pertsonei nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoari buruzko informazioa emango diete, baita modu horretan ekoizteak iraunkortasunerako eta ingurumenerako duen garrantzia eta elikagai bat ekologikoa izateko ziurtapenak duen garrantzia ere.

Erakusketarekin batera, CPAEN/NNPEKek ikastaro bat antolatu du lau liburutegietan **laborantza ekologikoan hasteko**. Óscar Ibáñez Salinas nekazaritza ekologikoak emana.

**Deskargatu 10 fitxa informatiboak nekazaritza ekologikoa lantzeko**

## Bi elikagai ekologikoen azoka hilero Iruñean

Duela 5 urte Ekomerkatua Iruñeko Autobus Zaharrean ospatzen dena, **elikagai ekologikoen hainbat ekoizle biltzen ditu hilabetearen lehenengo larunbatean.** Gainera, hilabetearen arabera sentsibilizazio jarduera ezberdinak egiten dira azokaren produktoreekin partekatzeko jarduera horien artean; elikadura osasungarriari buruzko hitzaldiak, elikagaien katak edo txikientzako ipuin kontalariak daude.

Beste aldetik, aurtengo berria Basotxoaren azoka da hilabetearen bigarren larunbatean ospatzen dena Iruñeko Takonera parkean. **Azoka 30 postu ditu, CPAEN/NNPEK, INTIA, Nafarroako Artisau Elikagaien Elkartea eta Bizilur Elkartearen artean banatutak.** Aire librean dagoen azoka honen helburu nagusia iraunkortasuna da Iruñeko herritarren eta hirira bisitan etortzen direnen artean.

## CPAEN/NNPEK, Ingurumenaren saria jaso du Ser Nafarroaren eskutik

**Premios Ser Navarra IX. Edizioa atzo ospatu egin zen Iruñean hamar sari banatu zituen desberdin pertsona eta kolektiboei bere ahalegina gizartea hobetzearen helburuarekin horregatik, Ser Nafarroa CPAEN/NNPEKren lana azpimarratu egin du.**




Saria, Servicios Ecológicos de Navarra babesarekin banatu egin zen **"bere apustua nekazaritza ekologikoan sustatzeagatik, elikagai seguruak ekoizteagatik eta landa- zonaldeen ekonomia hobetzeagatik".** María José Arrondo lehendakaria, eszenatokira igo egin zen Ingurumenaren saria jasotzera.

# Ezagutu:

CPAEN/NNPEKEKO OPERADOREEN

# Berriak

**Zure proiektu ekologikoari buruzko berriak dituzu?**
Bidali xehetasunak prensa@cpaen.org helbidera eta gure webgunean eta buletinean partekatuko ditugu.

## Nafarroako ardo ekologikoak sarituak

**Nafarroako Jatorri Deituraren Kontseilu Arautzailea 10 ardo nafartar saritu ditu, horien artean 3 ekologikoak;** Bodegas Lezaun Lezaun Tempranillo 2024 ardoarekin, Bodega Quaderna Via Be Bike Rosado 2024 eta Bodega Marqués de Montecierzo Emergente Dulce Moscatel 2024 ardoarekin. Hauek, promoziorako erabiliko dira baita hainbat kata edo formazio jarduetarako.

**Baita ere, nafarroako ardo ekologikoak zoriondu egin behar dira Nafarroa Ecovinon arrakasta handia izan duelako.** Lehen aipatutako hiru upeltegiez gain, Bodegas Biurko Gorri, Bodegas Bagordi, Bodegas Ochoa, Bodegas JF Arriezu eta Bodegas Aroa denen artean **20 sari lortu egin dituzte Ecovino sarietan Errioxan ospatu egin zirenak.**

Azpimarratzekoa da horietako bi Grandes Ecovino de Oro saria lortu dutela:

— **Bodega Biurko Gorri** Blanco Joven Biurko ardoarekin
— **Bodega Marques de Montecierzo** Rosado Emergente Lágrima ardoarekin (ardo hau arrosa bakarra izan da bere kategorian aintzapen handiena lortu egin duena)

## Isanatur, lehenengo saria *2024/2025ko Oliba Olio Jasangarriaren Lehiaketa Internazionalean*




**ECOPROLIVE Edición Limitada oliba olio extra, Nafarroan ekoiztua, lehenengo saria jaso izan du World's Best Healthy EVOO Competition (WBHEC) lehiaketa internazionalean,** oliba-olioaren kalitate osasungarrian soilik zentratzen den munduko lehiaketa bakarra, osasun kardiobaskularrarekin, metabolikoaren eta hanturaren aurkakoarekin lotutako irizpide zientifiko objetiboak ebaluatuz, zapore- edo marketin-alderdiei erreparatu gabe.

Olio hau **Pikual-Arroniz olibak** erabiliz ekoizten da uzta goiztiar baten eta hezurrik gabeko hotzean erauzteko metodo berritzaile baten bidez. Prozesu honen bidez, ECOPROLIVE igo egin du podiumean bost urtez egon ondoren munduko oliba olioen hoberenen artean WBHEC-ean.

## Ekolo limonada naturalen lerro berritzaile bat aurkeztu du

**Ekolok beste urrats bat eman du elikadura osasungarriaren aldeko apustuan, limonada lerro berria aurkeztu baitu Madrilgo Salón Gourmeten.**




Limoi zuku zukugailuarekin eginda, 3 osagai natural eta osasuntsuak gehituz. Mota bakoitza pentsatua izan da esperientzia freskagarri eta ezberdin bat izateko.

— **Limonada belar-gauarekin** oso freskagarria, digestio- eta biziberritze-efektuagatik nabarmentzen da, limoiaren zapore azidoa eta belar-gauaren freskura konbinatuz.
— **Limonada jengibrerekin** ukitu pikante eta energizantea ematen du, sustrai horren hanturaren aurkako onurei eta onura antioxidatzaileei esker, sistema immunologikoa indartzeagatik ere ezaguna dena.
— **Limonada hibiskusekin** aukera dardaratsuena da, kolore arrosa bat izanez. Azidotasun txikia eta lore-notak antioxidatzaile kopuru handiarekin osatzen dira, eta osasun kardiobaskularra zaintzen eta arteria-presioa erregulatzen laguntzen dute.

## Hacienda Quieles-ko ABBAE, nabarmenduta Mario Solinas 2025 sarietan



**Hacienda Queilesen ABBAE olio-oliba extra, Monteagudon ekoiztua, hirugarren saria lortu du frutado maduro kategorian Mario Solinas lehiaketa internazionalean.**

Sariak, 25. edizioa ospatzen dute erreferente nazional eta internazionala izanez.

ABBAE **olio-oliba extra arbequina monobarientala da**, oliba ekologikoak soilik erabiliz 2024ko urrian eta azaroan uzta bildutan.

## Martiko produktu berriak BIO gaman




**Kontsumitzaileei kalitate goreneko produktua emateko konpromisoarekin jarraituz, materia prima hautatzen den momentutik Ahumados Martiko aukeratu du balio erantsi bat ematea bere produktu Eco-Bio-etan.**

Inoiz izoztua izan den materia prima, kolore biziak eta modu jasangarri batean elikatua.

80gr-ko formatu eroso batean aurkitu daiteke. **Pago-zurez egindako ketu tradizionala,** berezko zaporea emateko. **Keztatze marinatua,** hautatutako espezietan heltzearen ondoriozko zapore sotilarekin. Eta **Nature,** izokinaren zapore guztia babesteko keztatze-prozesua kendu zaion arraina.

## Formatu berriak, konpromiso berdina: Lácteos Aspace 125gr-ko ontziak atera ditu jasangarriagoak eta eskuragarriagoak



**Lácteos Aspace elikadura ekologiko batez apostu egiten du, sozialki arduratsua eta merkatuaren beharretara egokitua. Azkeneko urratsa 125 gramoko formatu indibidual berri bat gehitzea izan da, kefir, jogurt eta edari probiotikoaren erreferentzietarako eskuragarri dagoena eta 2ko packean eskainia.**

Aldaketa hau hiru motibazio ondorioz izan da:

— **Erosotasun handiagoa kontsumitzaileentzat:** garraiatzeko, kontserbatzeko eta kontsumitzeko errazak diren ontziak, eguneroko bizitzarako aproposak.
— **Prezio eskuragarriagoa:** formatu merkeagoa, produktu ekologiko ziurtatu baten kalitateari eta onurei uko egin gabe.
— **Ingurumen-konpromisoa:** ontzi arinagoak eta ingurumena errespetatzen dutenak, birziklatzeko erraztasunagatik eta gure jasangarritasunbalioekin lerrokatuta daudelako.

Lácteos Aspace elikadura transformazio proiektu bat baino gehiago da: landa-ingurunean **enplegu inklusiboa eta kalitatezakoa sortzen duen ekimena da.**

# CPAEN/NNPEKek **ENACen egiaztapena** lortu du




ENAC
Entidad Nacional de Acreditación

**Pasaden otsailak 28, CPAEN/NNPEK ENAC (Entidad Nacional de Acreditaciones) egiaztapena lortu du. Egiaztapena internazionalki ezarritako tresna da, ebaluazio-jarduerak behar bezala gauzatzeari buruzko konfiantza sortzeko, eta emaitzak fidagarriak izateko.**

Egiaztapenarekin CPAEN/NNPEK erakundeak kontrol- eta ziurtapen-sistemak modu fidagarrian, objektiboan eta inpartzialean aplikatzen dituela bermatzen du. Kontsumitzaileari konfiantza ematea eta prozeduretan kalitate gorena bermatzea lortzen du, produktuaren ziurtapenari buruzko ISO 17065 arauaren estandarren arabera.

Erakundeak lanean jarraituko du ekoizpen ekologikoari balioa emateko, nekazaritza-ekoizpen jasangarriaren eredu gisa eta ingurumena errespetatzen duen eredu gisa, biodibertsitatearen defentsa gisa eta klima-aldaketaren aurka lerrokatuta, Europako Batzordeak ezarritako helburua lortzeko: Nafarroan landatutako ekoizpen ekologikoa handitzea, 2030ean % 25era iritsi arte.

# Agenda Ekológikoa

## EKOmerkatua

- Abuztuak 2
- Irailak 6

## Basotxoa Bosquecillo

- Abuztuak 9

## EKOtopaketa

- Irailak 4

## Nafarroako X. Azoka Ekologikoa

- Irailak 12-13-14 · Parque de los Sentidos (Noáin)

## Sentsibilizazio tailerrak

*CPAEN/NNPEK antolatuta*

### BADAKIZU ZER JATEN DUZUN? TAILERRA

- Uztailaren 17an · Aibar
- Abuztuak 14 · Yesa

### INTSEKTU HOTELA TAILERRA

- Uztailaren 19an · Sangüesa

### IPUIN KONTALARIA

- Uztailaren 24an · Estella-Lizarra

### HAZI BONBEN TAILERRA

- Uztailaren 26an · Cáseda

### BARATZARAKO ERREMEDIOEN HITZALDIA

- Uztailaren 31an · Aibar

**¡Anima zaitez zure produktu ekologikoekin Nafarroako Azoka Ekologiko handienera!**
Informazio gehiago:
isabel@cpaen.org / 634 800 717

